

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Kobratzeko moduan jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren zergadunen errolda. 2017ko ekitaldia

Egin da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren zergadunen errolda. Jendaurrean dago 2017ko azaroaren 15eko ALHAOn, 131. zk., argitaratu zenetik. Zergadunen erroldak jendaurrean jartzeak likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitu otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 98. artikulua 3. idatz zatian.

2017ko abenduaren 12tik 2018ko otsailaren 12ra bitartean, bi egun horiek barne, egun baliodunetan, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aurtengo ordainagiriak ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

I. Ordaintzeko epeak

A) Borondatezko epea: 2017ko abenduaren 12tik 2018ko otsailaren 12ra.

B) Betearazte aldia: 2018ko otsailaren 13tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertzeko erre-kurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2017ko azaroaren 28a

Alkatea

MAIDER MURILLO TREVIÑO